

ERRIBERRIko ANTZERKI JAIALDIA

2020ko UZTAILAREN 17tik ABUZTUAREN 2RA



WWW.OLITETEATROFESTIVAL.COM

#ANTZERKIAERRIBERRI2020



SARREREN SALMENTA

Ekainaren 24tik aurrera

SALMENTA ONLINE

www.oliteteatrofestival.com

www.baluarte.com

SALMENTA LEIHATILAN

BALUARTE

T. 948 066 060

- Ekainaren 24tik uztaillaren 4ra, de 11:00 - 14:00 eta 17:00 a 20:00, astelehenetik larunbatera.
- Uztaillaren 16tik abuztuaren 2ra, de 11:00 - 14:00, astelehenetik larunbatera. Igandeak ixita.

ERRIBERRI

T. 948 741 703

- Ekainaren 24tik eta jaialdian zehar, Turismo Bulegoan / Ardoaren Museoa (Teobaldoen plaza 4, Erriberri).
 - Astelehentik ostiralera, 17:00 - 19:00
 - Igande eta jaiegunak, 12:00 - 14:00
 - Emankizunen egunetan, 19:00 - 21:30

TAFALLAKO KULTURGUNEA

T. 948 755 969

Testu Poetikoaren Zikloa (prezio bakarra 3€) eta Lázaro eta Expediente K (Carta al padre) (prezio bakarra 6€).
Sarrerak Tafalla Kulturguneako leihatilan eta online baino ez dira saltzen ekainaren 24tik aurrera https://es.patronbase.com/_Tafalla/Productions web orrian.

ERRIBERRIKO KULTUR ETXEA

T. 948 740 772

Testu Poetikoaren Zikloa (prezio bakarra 3€). Sarrerak Erriberriko Kultur Etxean eta emankizunaren egunean baino ez dira saltzen

PREZIOAK

	Online eta leihatilan EKAINAREN 24TIK AURRERA	Gazte Txartela online eta leihatilan EKAINAREN 24TIK AURRERA
LA CAVA	18 €	10 €
ABONAMENDU osoa La Cava (14 emanaldi)	190 €	100 €
3 lanerako ABONAMENDUA La Cava (edozein egunetan)	50 €	25 €

MUGIKORTASUN MURRIZTUA DUTEN PERTSONAK Erriberriko Antzerki Jaialdian, emanaldi bakoitzerako 4 leku daude gordeta mugikortasun murriztua duten pertsonentzat. Sarrera horiek erosi nahi dituzten ikus-entzuleek Baluarteko eta Erriberriko txarteldegietan edo 948 066 060 telefono zenbakia erabiliz egin beharko dute (erosketa bakoitzean, gehienez ere, 2 sarrera erosi ahal izango dira). Hartara, Antzerki Jaialdiak ezin die bermatu beren beharretarako kokaleku egokia izatea, gordetako leku horietarako ez den sarrera erosten duten mugikortasun murriztuko pertsonak. Edonola ere, antolatzaileak saiaturako dira ikus-entzule horiek kokatzen esparruak eskaintzen dituen aukeren barnean.


Ikuskizunaren datuak, eguna eta ordutegia web gunean baietza itzazu. Baliteke bertako informazioa eguneratuago egotea.

INFORMAZIO GEHIAGO WWW.OLITETEATROFESTIVAL.COM

ERRIBERRIKO ANTZERKI JAIALDIAK ZAITZEN ZAITU



Maskarekin etor zaitez;
derrigorrezkoa da.



Beste pertsonetikiko
segurtasun-tartea mantendu.



Erabili gel hidroalkoholikoaren
banagailuak.



Emandako besaulkian
eseri eta ez ibili noraezean
barrutian zehar.



Langileen gomendioak jarraitu.



Segurtasunagatik,
ez dago estalki-zerbitzurik,
ezta esku-programarik ere.

GOZATU ETA AMETS EGIN
IKUSKIZUNAREKIN



SEGURTASUNEZ GOZATZEKO JAIALDIA

Godaten zain obran gertatzen den bezala, ziurgabetasun garaiak bizi ditugu. Baina, Samuel Becketten pertsonaia ikaragaitzak ez bezala, Kultura Zuzendaritza Nagusia - Vianako Printzea erakundea gauzatzen dugunok berehala jarri ginen abian Erriberriko Antzerki Jaialdiaren 21. edizioa posible egiteko, inguratzen gaituzten baldintzek desberdina izango dela iragartzen dutelarik, COVID 19ak eragindako osasun-krisiaren ondorioz.

“Espainiako poesiatik Europako antzerki garaikidera” lelopean, proposamenen kalitateak, osasun segurtasuna bermatzeko neurriek eta Foru

Erkidegoko antzerki sektoreari emandako babesak markatutako jaialdia izango da.

Bi hamarkadako ibilaldi sendoak bihurtu du Erriberri antzerkigintzaren erreferentziatzeko hitzorduetako bat estatuan. Aurten, bere papera are nabarmenagoa izango da abangoardia izateagatik, bai Nafarroan —Kultura Zuzendaritza Nagusiak konfinamenduaren ondoren antolatutako lehen saio presentziala bait da—, bai estatuko gainerako lurraldeetan —Espainia mailan egiten den lehen jaialdietako bat izango da, eta aurreikusitako datak mantentzen dituen bakarra—.

Eta nahiz eta bide ezezagun bat irekitzeak beti zailtasun erantsiak dakartzan, antzerkiaren festa hau ospatzeko premian biziki sinesten dugu. Mundua bizitzeko leku egokiago bat bilakatzeko kulturak duen balioa aldarrikatzeko; agertokiaren inguruan ogibidea dutenentzat laguntza bezala; jaialdiko publikoarentzat eta herritar guztientzat poztasun-, ilusio- eta itxaropen-mezu moduan.

Horretarako, diziplina anitzeko programazio bat diseinatu da, bere baitan musika, dantza edota zirkua biltzen dituena. Bertan ere espainiar klasikoak, Europako autore garaikideekin batera, berrirakurriko ditugu, nazio mailako gaur egungo konpainia hoberenetako batzuen eskutik.

Nafar antzerkiak leku garrantzitsua beteko du aurtengo edizioan, 2020koa izango bait da, Jaialdiaren historian, gure Erkidegoko proposamen gehien programatu dituena. Guztira, bederatz

konpainiek hamalau emanaldi eskainiko dituzte: bost La Cavan taularatuko dira, lau Testu Poetikoen zikloan eta beste bat egonaldia/laborategian garatuko da.

Baina hori guztia ez litzateke bideragarria izanen Nafarroako Gobernu Osasun Departamentuarekin, Erriberriko Udalarekin eta Tafallako Udalarekin lankidetzan estuan egindako lana gabe; izan ere, ikusleen, programatutako konpainien eta jaialdian lan egiten duen ororen osasun-segurtasuna bermatzeko protokolo bat ezarri da. Edizio ezberdina izango da, non gure ikusleak zainduko ditugun, segurtasunez gozatzeko jaialdi bat eskaintzeko.

Ignacio Apezteguía Morentin
Kultura Zuzendari nagusia -
Vianako Printzea Erakundea

21. Erriberriko Antzerki Jaialdia

ESPAINIAKO POESIATIK EUROPAKO ANTZERKI GARAIKIDERA

Arnasa hartu, barre egin eta amets egin. Antzerkia arnasa da, barrea da eta amets egiteko aukera ematen digu; nahikoa dira espazio huts bat, aktore bat eta ikusle bat antzerki ekitaldi bat egiteko, hirurek bestearen presentziaren eta energiaren beharra dute.

Erriberri Antzerki Jaialditik, gizarteak Kultura beharrezkotzat eta zerbitzu publikotzat har dezan lagundu nahi nuke, ez denborapasa soil gisa. Gabriel Celayaren bertsoetan bezala, "Eguneroko ogia bezain beharrezko poesia", "Hondoa jotzen ari gara".

Kulturan pentsatu behar dugu, Osasunean eta Hezkuntzan pentsatzen den bezala. Osasungintzak gorputzaren gaitzak zaintzen badaizkigu eta hezkuntzak intelektualki hazten laguntzen badigu, Kulturak arima osatzen eta espirtua sendatzen ditu.

Kulturan, beharrezkoa da premiazko hausnarketa sakon bat.

Jausi zaigunaren eta bizitzen ari garenen ondoren ezin gara normaltasunera itzuli, edo gutxienez geure buruari galdetu behar diogu: nolako normaltasunera itzuli nahi dugu?

Antzezpenean gure dohainak eta miseriak erakusten dizkiguna da benetako Antzerkia. Ez da denborapasa, gozamina da, bizitzaz aritzen da eta, Peter Brookek dioen bezala, "bizitza da".

Jendarte bat zalantzatik abiatuta baino ezin da hazi; zalantzak erantzuten bila garamatza; Antzerkia, berez, erantzun bat da, gure burua mozorrorik gabe ikusten laguntzen digun ispilua izateagatik.

Zentzu horretan, jendartean hazten lagunduko gaituen katarsia da eta hala behar du.

Antzerki-bidaia honetan, dagoeneko ez daudenak gogoratuko ditugu, lasaitasunaren bila eta gure zentzumenen gozamenerako, Mielotxinen doinuekin eta euskal sustraiekin irekiko dugu jaialdia, Lope de Vegaren, San Juan de la Cruzen, Tirso de Molinaren eta abarren bertsoak entzungo ditugu Raúl Losáñezen Esta divina prisión antzezlanean.

Bidaiatuko gara, gure klasikoetatik abiatuta –Teatro Clásico de Sevilla konpainiaren *La estrella de Sevilla*; *Las danzas y entremeses de Juan Rana*, Ron Laláren eta CNTCren elkarlana; *La Celestina*, Bambalina konpainiaren txotxongiloekin; eta Leamoken Lazararo (Tormesko itsumutila) inoiz baino errebeldeago eta egungo batekin– XX. mendeko Europako antzerkiko olerkigintzaren **egile garaikide eta adierazgarrietara**: Carmelo Gómezen konpainiaren *A vueltas con Lorca*, Samuel Becketen *Esperando a Godot*, Pentaciónen ekoizpena; Dafnis Balduzen ekoizpena den *Expediente K (Carta al padre)*, Franz Kafkaren testuaren antzerkirako egokitzapena; eta Bertolt Brechten *Madre Coraje*, Atalaya konpainiak jaialdia ixteko.

Espainiar klasikoaren eta europar garaikidearen artean, Espainiako sorkuntzako emakumerik adierazgarrienetako bat, Ana Vallés, bere *DAIMON* y *la jodida lógica*, Matarileren ekoizpenarekin. Edertasunez eta poesiaz betetako antzerki *performance* bat aurkeztuko du, non gorputzek mugimenduarekin, hitzarekin, isiltasunarekin eta umore adimentsuarekin bat egiten duten. Sormen-lan hau Antonin Artaudek defendatzen zuen *Erabateko Ikuskizunaren* joeran koka daiteke.

Azken astean arnasa hartuko dugu Vaivén konpainiaren *Yo, la peor del mundo* Sor Juana Inés de la Cruzen inspiratutako komedia musikalararekin eta Adriana Bilbaoren dantzarekin, bere *Burdina/Hierro* koreografiaren eskutik. Ikuskizun honek, migrazioaren zailtasunetatik abiatuta, flamenkoaren musikaren eta dantzaren profesionalak euskal erritmo eta musikarekin lotzen ditu. Bertan lan egiten duen Ipar Euskal Herriko Beñat Achiary musikagile eta musikaria estatutik kanpoko partehartzaille bakarra da aurtengo edizioan.

Nafarroako programazioan, Mielotxini eta Carmelo Gomezi La Caja Flotante gehitu behar zaie Max sarietarako izendatua izan zen *Catástrofe* sorkuntzarekin.

Edizio honetan eta La Cavan, jaialdia beste joera eszeniko batzuetara irekitzeko bi proposamen berri, Foru Erkidegokoak biak: la Banda Teatroyen *Kimera* zirkua eta Yarleuren *La casa más pequeña* haurrentzako antzerkia, publiko gazteenari eszenarekin eta jaialdiaren magiarekin topatzea errazteko.

Aurreko urteetan bezala, Testu Poetikoaren Zikloa eta Laborategi Egonaldia deitu dituzte talde profesionalentzat. Nafarroan ekoizpena sustatzeko

pentsatutako bi programa hauek desberdinak dira sortze prozesuetan, baina bi helburu dituzte amankomunean: bata, etorkizunean beste erakunde batzuekin koprodukzioak egiten hastea; eta bestea, Foru Erkidegoko zirkuituaren eta kultur guneeetako programazioa aberastea.

Topaketa berezi bat izango dugu kultur-prentsako hiru profesionalekin: RTVEko Machús Osinaga, *La Razón*ko Raúl Losáñez eta RNEko Daniel Galindo, udako jaialdietako gorabeherak, era lasai eta dibertigarrian kontatzeko.

Antonio Simón Rodríguez da edizio honetako zuzendari gonbidatua, *Esperando a Godot* lanaren zuzendaria. Aktore eta zuzendarietzako tailer bat emango du, eta publikoari eta profesionali irekitako topaketa batean parte hartuko du, bere ibilbideaz eta aktorearen lanbideaz hitz egiteko.

Betebehar bat daukagu: Erriberriko Antzerki Jaialdia egitea Kultura zaintzeko eta,aldi berean, kultur gintza indartzeko eta babesteko.

Amaitzeko, osasun egoeragatik aurtengo edizioan programaziotik kanpo geratu diren taldeak, antzezleak, musikariak eta teknikariak ditut gogoan.

Berreskura dezagun kalea, *arduraz*. Bete ditzagun plazak txotxongilolariz, musikariz, pailazoz, dantzaz, bufoiz eta inauterietako mozorroz, *arduraz*. Kanean, bizitzako agertokietan, egiak datza, *Munduko Antzoki Handia* dago.

Luis F. Jiménez
Zuzendari artistikoa
Erriberriko Antzerki Jaialdia



UZTAILAK 17 OSTIRALA

20:00 / ERIBERRIKO KULTUR ETXEA 

MÁXIMA ESTRELLA

LORE MORE
Zuzendaritza: **Mikele Urroz Zabalza**

22:00 / LA CAVA 

MIELOTXIN + LAUARIN DANTZARIAK + HUTSUN TXALAPARTARIAK

Ikuskizun musikal, bisual eta erritmiko indartsua, artearekiko, lurrarekiko eta bizitzarekiko konpromisoz betea.

UZTAILAK 18 LARUNBATA

20:00 / ERIBERRIKO KULTUR ETXEA 

LA TRASERA

Iratxe García Uriz
IRALEI

22:00 / LA CAVA

LA ESTRELLA DE SEVILLA

Lope de Vega
Moldaketa eta zuzendaritza: **Alfonso Zurro**
TEATRO CLÁSICO DE SEVILLA
Urrezko Mendeko gure antzerkiaren erreferentziatzko tragedietako bat.

UZTAILAK 19 IGANDEA

12:00 / OFICINA DE TURISMO - MUSEO DEL VINO

PRENTSAREKIN TOPAKETA

Machús Osinaga, Daniel Galindo eta Raül Losáñez kazetariekin

20:00 / ERIBERRIKO KULTUR ETXEA 

AHORA ME TOCA A MÍ

Dramaturgia eta zuzendaritza: **Miguel Goikoetxandia**
ILUNA PRODUCCIONES

22:00 / LA CAVA

ESTA DIVINA PRISIÓN

Raúl Losáñez. XVI. mendetik XIX. mendera bitarteko olerkietan oinarrituta MB Y MB
Zuzendaritza: **Ana Contreras**
Poesia mistikoko errezitaldi arin eta hunkigarri bat, poeta espainiar askoren testuekin: Santa Teresa de Jesús, San Juan de la Cruz edo Jorge Manrique, Tirso de Molina, Sor Isabel de Jesús edo Gustavo Adolfo Bécquerren bertsoetatik pasatuz.

UZTAILAK 21 ASTEARTEA

22:00 / LA CAVA 

CATÁSTROFE

Antonio Rojanoren dramaturgiarekin egindako talde-sorkuntza LA CAJA FLOTANTE
Zuzendaritza: **Iñigo Rodríguez-Claro**
Lau aktorek hitz egiten digute oraindik egin dezaketen leku bakarretik: fikzioak zeharkatutako ni baten biluztasunetik.

UZTAILAK 22 ASTEAZKENA

22:00 / LA CAVA  +18

DAIMON y la jodida lógica

Dramaturgia eta zuzendaritza: **Ana Vallés**
MATARILE
Zer da DAIMONa? Patua, kontzientziaren ahotsa, intuizioa, aingerua edo deabrua, gelditu edo bultzatzen duen barne ahotsaren xuxurla da.

UZTAILAK 23 OSTEGUNA

20:00 / ERIBERRIKO KULTUR ETXEA 

EL CRIMEN FUE EN GRANADA

LA NAVÉ
Zuzendaritza: **Marta Juárez**

22:00 / LA CAVA  +16

ANDANZAS Y ENTREMESES DE JUAN RANA

Talde-sorkuntza: Ron Lalá
RON LALÁ + CNTC
Zuzendaritza: **Yayo Cáceres**
Zuzeneko musikarekin egindako pieza laburren festa bat, umorearen mugen inguruko hausnarketa bat eta Espainiako antzerki klasikoko funtsezko figura bati omenaldia.

UZTAILAK 24 OSTIRALA

12:00 / TURISMO BULEGOA - ARDOAREN MUSEOA

SORTZAILEEKIN TOPAKETA

Antonio Simónekin

20:00 / TAFALLAKO KULTURGUNE 

MÁXIMA ESTRELLA

ESPERANDO A GODOT

Samuel Beckett
PENTACIÓN ESPECTÁCULOS
Zuzendaritza: **Antonio Simón**
Antonio Simón antzerki zuzendariak aktoreekin egindako lana erdigunean jarri izan du bere ibilbide luze eta ospetsuan. Oraingoan, aktore-talde boteretsu eta karismatikoa dakar, dagoeneko iruditegi kolektiboaren parte den XX. mendeko klasiko bat taularatzeko.

UZTAILAK 25 LARUNBATA

UZTAILAK 25, 26, 27, 28, 29
17:00 / ERIBERRIKO KULTUR ETXEA

TAILERRA

Antonio Simón

20:00 / TAFALLAKO KULTURGUNE

LÁZARO

Dramaturgia eta zuzendaritza: **Roberto Hoyo**
LEAMÖK
Hip hop estilora kontatuta, batzuetan joko eszenikoaren motorra izatera iritsiz, *Tormesko Itsumutila* klasiko espainiarraren egokitzapen libre baten aurrean aurkitzen gara.

22:00 / LA CAVA 

A VUELTAS CON LORCA

Emi Ekai eta Carmelo Gómez García
Lorca, Cervantes eta Lope de Vegaren testuetatik abiatuta.
CARMELO GÓMEZ Y MIKHAIL STUDYONOV
Zuzendaritza: **Emi Ekai**
UMusikaren eta hitzaren elkartzan poeta unibertsalaren egji xumeetan eta misterioetan murgilduko gaitu.

UZTAILAK 26 IGANDEA

20:00 / TAFALLAKO KULTURGUNE 

LA TRASERA

22:00 / LA CAVA  +16

LA CELESTINA

Fernando de Rojas
Moldaketa eta zuzendaritza: **Jaume Policarpo**
BAMBALINA TEATRE PRACTICABLE
Bambalina beti nabarmendu izan da txotxongiloen kodea diziplinarteko munduetara zabaltzeko borondateagatik, eta proposamenak aurkeztu izan ditu dramaturgia bizi batekin, beste arte bisualekin ahaidetuta.

UZTAILAK 29 ASTEAZKENA

22:00 / LA CAVA  

LA CASA MÁS PEQUEÑA

Maialen Díaz
YARLEKU TEATRO
Zuzendaritza: **Rosa Díaz**
Publiko guztientzako obra honek haur errefuxiatuek jatorrizko lekutik alde egin ondoren eta haien helmuga zein izango den jakin gabe, bizi duten ziurgabetasuna jorratzen du.

UZTAILAK 30 OSTEGUNA

22:00 / LA CAVA 

KIMERA

LA BANDA TEATRO-CIRCO
Zuzendaritza: **Joserra Martínez**
Ikuskizun dibertigarri eta hunkigarri honetan begirada, gorputza, trebetasuna eta unibertso berezi eta zirrargarri bat eraikitzeko gaitasuna uztartzen dira. *Linh jaunaren bilobaren* birsorkuntza askea zirkuaeren hizkuntzan.

UZTAILAK 31 OSTIRALA

20:00 / TAFALLAKO KULTURGUNE 

AHORA ME TOCA A MÍ

22:00 / LA CAVA

YO, LA PEOR DEL MUNDO

Antonio Muñoz de Mesa
VAIVÉN PRODUCCIONES
Zuzendaritza: **Olga Margallo**
Ikuskizun bizizalea da hau, bere garaian jenio bat izan zen eta gaur egun oraindik harritzen gaituen emakume baten kolore, musika, edertasun eta irudimenez kutsatua.

ABUZTUAK 1 LARUNBATA

20:00 / CASA DE CULTURA DE TAFALLA

EXPEDIENTE K (LA CARTA AL PADRE)

Franz Kafka eta Susanna García-Preto
Zuzendaritza: **Alex D. Capó**

22:00 / LA CAVA

BURDINA/HIERRO

Adriana Bilbao eta Beñat Achiari
ADRIANA BILBAO
Barrenak harriaren kontra egiten duen zarata, flamenkoa, euskal kultura, sorkuntza eta bapatekotasuna, tradizioa eta modernitatekin indartsuena... urrutitik, bereziki Andaluziatik, Bizkaiko meategietan lan egitera iritsi ziren gizon eta emakume haiei omenaldi bat egiteko.

ABUZTUAK 2 IGANDEA

20:00 / TAFALLAKO KULTURGUNE 

EL CRIMEN FUE EN GRANADA

22:00 / LA CAVA

MADRE CORAJE

Bertol Brecht
Moldaketa eta zuzendaritza: **Ricardo Iniesta**
ATALAYA
Zein aukera hartuko zenue bizi duguna bezalako muturreko krisi-egoera batean? Publikoa Marga Reyes bikain batek gidatutako talde baten hitzek galdekututa sentitzea nahi du Atalayak.

ERIBERRI

EGOITZAREN AURKEZPENA

OIHALKI BAT, MUNDU BAT
YARLEKU TEATRO

LA CAVA



MIELOTXIN + LAUARIN DANTZARIAK + HUTSUN TXALAPARTARIAK



UZTAILAK 17, OSTIRALA / LA CAVA/ 22:00

Jaialdiaren inaugurazio gaua sustraietara jotzen du, baina baita soinu berrietara ere. Mielotxinek, herri musikaren eta world music mugimenduaren banderari den talde nafarrak, emanaldi harrigarria aurkezten du, non musika tresna tradizionalak –akordeoia edo alboka kasu– kontrabaxuarekin, pianoarekin edo munduko perkusio set batekin modu fresko eta berritzailean bat egiten duten.

Abesti instrumentalaren interpretazio leun eta bertutetsuak, gaztelaniazko eta euskarazko hitzak, jotak, zortzikoak..., Luarin Dantzariak ere agertokian direla, euskal dantza berritzeko ikasgai diren koreografiak sortzeko hartzen dituenak.

Era berean, Hutsun Txalapartariak taldeak txalapartaren doinu dardarkaria dakarte jaialdiaren edizio hau irekitzeko ikuskizun musikal, bisual eta erritmiko indartsu batekin, artearekiko, lurrarekiko eta bizitzarekiko konpromisoarekin.

🎵 HEMENGO MUSIKA

LANTALDEA

Mielotxin: Iñigo Aguerri (akordeoia, kalinba eta ahotsa), Ismael Yagüe (txistuak, txirula, pianoa, bouzukia, ttun-ttuna, panderoa, goilarak, koroak...), Salva Tarazona (bateria, kutxa flamenkoa, bendhirra, panderoak, koroak...) eta Xavi Folch (kontrabaxua) / **Luarin Dantzariak:** Aitor Garcia, Oihane Munarriz, Naiara Ayesa eta Maite Txurruka / **Hutsun Txalapartariak:** Mikel Urrutia eta Anai Gamba.

LANTALDE ARTISTIKOA

Zuzendaritza: Iñigo Aguerri / **Soinu teknikaria:** Luis Ros / **Ekoizpena:** Mielotxin.

Argibide gehiago: www.mielotxin.com

Iraupena: 100'

LA ESTRELLA DE SEVILLA

Lope de Vega

TEATRO CLÁSICO DE SEVILLA

Moldaketa eta zuzendaritza: **Alfonso Zurro**



Luis Castilla

UZTAILAK 18, LARUNBATA / LA CAVA / 22:00

Lope de Vegaren *La Estrella de Sevilla* Urrezko Mendeko antzerkiaren erreferentziatzko tragedietako bat da. Sevillan jazotako ustezko gertakari historiko batzuk kontatzen dituen erabateko pieza baten aurrean gaude.

XIII. mendean gaude. Antso Zangarra erregea hiri honetara iristen da lehen aldiz eta Estrella Taveraren edertasunak liluratuta geratzen da. Hura desiratzen du, eta bere helburu bakarra lehenbailehen bereganatzea da, behar den edonor zapalduz.

Obrak ez du erregearekiko jarrera kritikoa ezkututzen, ez azpийhesetan, ez barrokismoetan. Zuzena da, argia, anbiguotasunik gabekoa. Planteamendu berri bat aurkitzen dugu, non Erdi Aroko erabateko boterearen aurrean hiritarraren kontzepzio modernoa agertzen den. Menekoak beren eskubideak eskatzen hasten dira beren monarken arbitrariotasun gupidagabeen aurrean.

Ikuskizun hau, Espainiako Titulartasun Publikoko Antzoki, Auditorio, Zirkuitu eta Jaialdien Sareak gomendatua, 2015ean bi ADE sari irabazi zituen, Andaluziako SGAE Antzerkiaren beste lau, Escenarios bost sari eta Max sarietarako bi izendapen eskuratu zituen.

ANTZEZLEAK

Rebeca Torres, Manuel Monteagudo, Moncho Sánchez-Diezma, Pablo Gómez-Pando Antonio Campos, Manuel Rodríguez eta Alicia Moruno.

LANTALDE ARTISTIKOA

Moldaketa eta zuzendaritza: Alfonso Zurro / **Ezkoizleak:** Juan Motilla y Noelia Díez / **Eszenografiaren eta jantzien diseinua:** Curt Allen Wilmer (AAPEE) / **Argiztapen-diseinua:** Florencio Ortiz (AAI) / **Musika eta soinu-espazioa:** Jasio Velasco / **Diseinu grafikoa eta argazkiak:** Luis Castilla / **Borroka eszenikoa:** Juan Motilla / **Makilajea eta ile-apainketa:** Anabel Beato / **Jantziatarako eta eszenografiarako laguntzailea:** Eva Moreno / **Zuzendaritza-laguntzailea:** Pepa Delgado / **Lantalde teknikoa:** Tito Tenorio, Valentín Donaire eta Enrique Galera / **Banaketa eta komunikazioa:** Noelia Díez.

La estrella de Sevilla Teatro Clásico de Sevillaren ekoizpen bat da.

Argibide gehiago: www.clasicodesevilla.com

Iraupena: 90'

ESTA DIVINA PRISIÓN

Raúl Losáñez, XVI. mendetik XIX. mendera bitarteko olerkietan oinarrituta

MB Y MB

Zuzendaritza: **Ana Contreras**



Rocío Sánchez Prado

UZTAILAK 19, IGANDEA / LA CAVA / 22:00

Santa Teresa de Jesusen, San Juan de la Cruzen edo Jorge Manriqueren olerkiak datoz agertokira bata bestearen atzetik, Tirso de Molinaren, Sor Isabel de Jesusen edo Gustavo Adolfo Bécquerren bertsoetatik pasatuz. Guztiak mistikaren eta bizitzaren zentzuaren gaiaren ingurukoak dira, garai klasikotik hasi eta modernismoraino, XV. mendetik XX. mendearen hasierarainoko poeta espainiarren hautaketa zabal baten testuekin, non esanezina azaltzen saiatzeko maitasunaren hizkuntza erabili duten.

Poesia mistikoko errezitaldi arin eta hunkigarri honetan soinuak, argiak eta sinboloek zirrikitu bat irekitzen digute lipar hori harrapatzeko, non edertasunak, errebelazioak eta estasiak, ulermenak, gozamenak eta askatasunak, erradikalak denak, bat egiten duten.

ANTZEZLEAK

Lola Casamayor, Jesús Noguero eta Eva Rufo.

LANTALDE ARTISTIKOA

Dramaturgia: Raúl Losáñez / **Zuzendaritza:** Ana Contreras / **Zuzendaritza-laguntzailea:** Julio Provençio / **Giropena:** Alicia Blas eta Lara Contreras / **Jatorrizko musika eta interpretazioa:** Miguel Huertas / **Ekoizpen exekutiboa:** Manuel Benito / **Ekoizpena:** Asociación Cultural MB y MB.

Esta divina prisión Asociación Cultural MB y MB-ren ekoizpen bat da.

Iraupena: 60'

CATÁSTROFE

Antonio Rojanoren dramaturgiarekin egindako talde-sorkuntza

LA CAJA FLOTANTE

Zuzendaritza: **Iñigo Rodríguez-Claro**



UZTAILAK 21, ASTEARTEA / LA CAVA / 22:00

Lau aktorek hitz egiten digute oraindik egin dezaketen leku bakarretik: fikzioak zeharkatutako ni baten biluztasunetik.

Eskuzabaltasunez, beren balizko biografiak partekatzen dituzte –beren buruaren negatiboak baillitza–, izan ez diren eta izango ez diren emakumeen eta gizonen bizitzak. Ion, Irene, José Juan eta Mikele halabeharraren baitan bizi dira eta euren esperientzia hondamendian amaitzen den joko gaizto baten eskuetan uzten dute.

Drama gure aurrean apurtzen da eta amildegi batetik bestera doa, erorketa librean, bere pertsonaien amets zapuztuak bezala. Memoria, zeharkatu beharko dugun azken basamortua bezala. Edo, oraindik, asmatu beharko duguna.

Inoiz inor itzultzen ez den amaiera horri aurrez aurre begiratzen dion abentura suizida.

📍 HEMENGO ANTZERKIA

ANTZEZLEAK

Ion Iraizoz, Mikele Urroz, Irene Ruiz eta José Juan Rodríguez.

LANTALDE ARTISTIKOA

Zuzendaritza: Iñigo Rodríguez-Claro / **Dramaturgia:** Antonio Lozano / **Zuzendaritza-laguntzailea:** Carlos Pulpón eta Javier L. Patiño / **Soinu-espazioa:** José Pablo Polo / **Jantziak eta eszenografia:** Paola de Diego / **Argiztapen-diseinua:** Pablo Seoane (Cía de la Luz) / **Ikus-entzunezkoak eta kartelaren diseinua:** La dalia negra / **Koreografia:** José Juan Rodríguez / **Komunikazioa:** Cristina Anta / **ekoizpena:** La Caja Flotante.

Catástrofe La Caja Flotanteren ekoizpen bat da.

Argibide gehiago: www.lacajaflotante.com

Iraupena: 100'

DAIMON y la jodida lógica

MATARILE

Dramaturgia eta zuzendaritza: **Ana Vallés**

UZTAILAK 22, ASTEAZKENA / LA CAVA / 22:00

Zer da DAIMONa?

Patua, kontzientziaren ahotsa, intuizioa, aingerua edo deabrua, gelditu edo bultzatzen duen barne ahotsaren xuxurla da.

Presentzia ezkutua, aurreikusi ezina, arrazionalki azaldu ezin ditugun ekintzak eta erabakiak zehazten dituena da.

Gorpuztasun bat eman diezaiokegu, presentzia ilun edo kolaboratzaile bat, gure ondoan dagoen eta ni ez naizen figura bat imajinatu dezakegu, eta gure nia osorik eta ukitu gabe geratuko litzateke.

Baina Matarileri gehiago interesatzen zaio norbera den DAIMON hori, gure ni ulertezina, irrazionaltasunarekin, misterioarekin, fantasiarekin konektatzen duen gutariko zati bat; ohiz kanpokora irakitzen den atea, salbatzen gaituen horretara, sublime den horretara edo eromenera.

Demagun emakume hau ez dela zoriontsua, ez zela izan. Demagun zer aurkitu zuten armairu batean, jantzien artean. Ileordez filosofia-saiakerekin batera bititzen aritu gaitezen. Hitz egin dezagun gosariez, zigarroez, eskuez, babeslekuez, agian, katuaz, ahots hartaz, axola duten gauzez.

+ 18 URTE

ANTZEZLEAK

Ricardo Santana, Nuria Sotelo, Celeste, Jorge de Arcos Pozo, Alba Loureiro, Cristina Hernández Cruz, Nacho Sanz, Neus Villà Jürgens eta Ana Cotoré.

EQUIPO ARTÍSTICO

Dramaturgia eta zuzendaritza: Ana Vallés / **Gainontzeko testuak:** Robert Burton, Yves Bonnefoy, Giuseppe Adami, Charles Baudelaire, Cristina Hernández, Ricardo Santana, Celeste, Neus Villà eta Ana Cotoré / **Koreografia:** Ricardo Santana, Nuria Sotelo, Celeste, Ana Cotoré, Cristina Hernández, Neus Villà Jürgens, Alba Loureiro, Jorge de Arcos, Ana Vallés / **Argiztapena, espazioa eta ekoizpen musikala:** Baltasar Patiño / **Musikariak:** Nacho Sanz, Cristina Hernández, Alba Loureiro, Neus Villà eta Nuria Sotelo / **Zuzendaritza-laguntzaileak:** Ricardo Santana eta Baltasar Patiño / **Argiztapen-laguntzaileak:** Miguel Muñoz / **Jantziak:** Matarile eta Naftalina / **Eraikuntzak:** José Faro eta José Quintela / **Argazkiak:** Rubén Vilanova / **Bideoa:** Edición Rusa / **Komunikazioa:** La Locomotora / **Ekoizpena eta Banaketa:** Juancho Gianzo.

DAIMON y la jodida lógica Matarileren ekoizpen bat da.

Argibide gehiago: www.matarileteatro.net/daimon-inicio

Iraupena: 120'

ANDANZAS Y ENTREMESES DE JUAN RANA

Talde-sorkuntza: Ron Lalá

RON LALÁ + CNTC

Zuzendaritza: Yayo Cáceres



David Ruiz

UZTAILAK 23, OSTEGUNA / LA CAVA / 22:00

Inkiszioa historiaren ibilbidea alda dezakeen epaiketa sekretu baterako bildu da.

Akusatua: Juan Rana, Urrezko Mendeko komedianterik ospetsuena.

Delitua: hainbat belaunalditako publikoari bere umore lotsagabe eta irigarriarekin barre eginaraztea, non gizarte osoa irudikatuta geratzen den. Frogak: Aktore bikaina protagonistia izan zen garaiko egile handien (Calderón, Moreto eta Quiñones de Benavente, besteak beste) entremes aukeraketa bat.

Akusazioak: blasfemia, men ez egitea, adeigabetasuna, zirikatzea, izaera kritikoa eta energia.

Balizko kondena: suan hiltzea.

Zuzeneko musikarekin egindako pieza laburren festa bat, umorearen mugen inguruko hausnarketa bat eta Espainiako antzerki klasikoko funtsezko figura bati omenaldia. Aurreko bi koprodukzioek, *En un lugar del Quijote eta Cervantina* (Max Saria Ikuskizun Musikal Hoberenari, 2017), azken urteotan nazioartean izan duten arrakastaren ondoren, Antzerki Klasikoaren Konpainia Nazionala eta Ron Lalá berriz ere elkartu dira proposamen berri honetan, eta urrezko antzerkiaren genero laburren komizitate izugarria aztertu eta figura eszeniko berezietako bat berreskuratu dute. Cosme Pérez, Juan Rana, komediantea.

+ 16 URTE

ANTZEZLEAK

Juan Cañas, Daniel Rovalher, Miguel Magdalena, Iñigo Echevarría eta Fran García.

LANTALDE ARTISTIKOA

Talde-sorkuntza: Ron Lalá / **Dramaturgia eta bertsiok:** Álvaro Tato / **Musika eta moldaketak:** Yayo Cáceres, Juan Cañas, Miguel Magdalena, Daniel Rovalher / **Zuzendaritza:** Yayo Cáceres / **Zuzendaritza musikala:** Miguel Magdalena / **Jantziak:** Tatiana de Sarabia / **Eszenografia eta atrezzoak:** Carolina González / **Argiztapena:** Miguel Á. Camacho / **Soinua:** Eduardo Gandulfo / **Juan Ranaren argazkia:** RAE / **Argizki-artxiboa:** Pablo Linés / **Entsegu-burua:** Javier Bernat / **Teknikarien burua:** Eduardo Gandulfo / **Argi-teknikaria:** Javier Bernat / **Makinaria:** Elena Cañizares / **Argazkiak eta ikus-entzunezkoak:** David Ruiz, Txus Jiménez / **Sareak:** Ron Lalá / **Prentsa:** María Díaz / **Administrazioa:** Juan Cañas / **Ekoizpen exekutiboa:** Martín Vaamonde / **Ekoizpen-diseinua:** Ron Lalá / Emilia Yagüe.

Andanzas y entremeses de Juan Rana Compañía Nacional de Teatro Clásicoren eta Ron Laláren elkarren arteko ekoizpen bat da.

Argibide gehiago: www.ronlala.com

Iraupena: 90'

ESPERANDO A GODOT

Samuel Beckett

PENTACIÓN ESPECTÁCULOS

Zuzendaritza: **Antonio Simón**



UZTAILAK 24, OSTIRALA / LA CAVA / 22:00

Antonio Simón antzerki zuzendariak aktoreekin egindako lana erdigunean jarri izan du bere ibilbide luze eta ospetsuan. Oraingoan, aktore-talde boteretsu eta karismatikoa dakar, dagoeneko iruditegi kolektiboaren parte den XX. mendeko klasiko bat taularatzeko.

Vladimir eta Estragon Godot noiz etorriko zain daude bide baten parean, zuhaitz baten ondoan. Hizketan, eta batzuetan eztabaidan, joaten zaie denbora. Pozzo, aurkitzen diren lurraren jabea dela dioen gizon krudel bat, iritsi eta mozten die. Lepotik lotuta dakar bere morroia Lucky, soka luze baten bidez kontrolatua dirudiena. Pozzo eta Lucky abiatu ondoren, Mutil bat dator Godoten mezu batekin: “Antza, ez da gaur etorriko, baina bihar arratsaldean etorriko da”.

Gizakiaren zaurgarritasunaren eta kemenaren metafora den obra honek transmititzen dizkigun indarra, umorea, poesia, samurtasuna, mina eta barrea gaur egun inoiz baino gehiago daude indarrean.

★ ZUZENDARI GONBIDATUA

ANTZEZLEAK

Pepe Viyuela, Alberto Jiménez, Juan Díaz, Fernando Albizu eta Jesús Lavi.

LANTALDE ARTISTIKOA

Zuzendaritza: Antonio Simón / **Esenografiaren diseinua:** Paco Azorín / **Argiztapen diseinua:** Pedro Yagüe / **Jantziak:** Ana Llena / **Soinu-espazioa:** Lucas Ariel Vallejos / **Zuzendaritza-laguntzailea:** Gerard Iravedra / **Ekoizpena:** Jesús Cimarro.

Esperando a Godot Pentación Espectáculos en ekoizpen bat da.

Argibide gehiago: www.pentacion.com

Iraupena: 110'

Sergio Parra



A VUELTAS CON LORCA

Emi Ekai eta Carmelo Gómez García Lorca, Cervantes eta Lope de Vegaren testuetatik abiatuta.

CARMELO GÓMEZ Y MIKHAIL STUDYONOV

Zuzendaritza: **Emi Ekai**

UZTAILAK 25, LARUNBATA / LA CAVA / 22:00

Carmelo eta Mikhail, lankideak *Elling* egin zutenetik, Lorcaren lanak eta irudiak adierazten duten maitasunaren eta heriotzaren arteko muga egin dute topo oraingoan.

Musikaren eta hitzaren elkartasunak poeta unibertsalaren egi xumeetan eta misterioetan murgilduko gaitu. Bidaia bizia eta aldakorra, maitasunetik tragediara eta Lorcaren heriotzara doana, bidean gizon bizidun, hedonista eta grinatsuaren mundu sentsual horretatik pasatuz. Baina ez da hori hor geratzen, poema beste norabidean ere itzultzen baita: heriotzatik maitasunera.

Pianoak narratzailea, poeta, aktorea laguntzen ditu konplize. Batzuetan ahotsa da pianoaren laguna. Eta batzuetan, Federicoren ideia musikalak hurbiltzen dituzte munduak eta garaiak. Horrela marrazten da poema bat bestearen atzetik, eszenaren eta publikoaren arteko zubi lana eginez.

► BERTSIO BERRIA, ESTREINALDIA ERRI BERRIN  HEMENGO ANTZERKIA

ANTZETZLEAK

Carmelo Gómez eta Mikhail Studyonov.

LANTALDE ARTISTIKOA

Zuzendaritza: Emi Ekai / **Egileak:** Emi Ekai eta Carmelo Gómez / **Moldaketa musikalak:** Mikhail Studyonov, García Lorcaren eta Turinaren bildumetatik abiatuta / **Ilustrazioak:** Oier Zuñiga / **Argazkiak:** Sergio Parra / Bideoa: Germán Roda / **Animazioak:** Natalia Ruiz / **Banaketa:** Dos Hermanas Catorce.

A vueltas con Lorca Emi Ecairen eta Carmelo Gómezen ekoizpen bat da.

Argibide gehiago: www.doshermanascatorce.com

Iraupena: 90'

LA CELESTINA

Fernando de Rojas

BAMBALINA TEATRE PRACTICABLE

Moldaketa eta zuzendaritza: **Jaume Policarpo**



UZTAILAK 26, IGANDEA / LA CAVA / 22:00

“Mundua ausartena da”, hausnartzen du Policarpok, gauzatze zaileko lanez interesatzeko joera baitu. Bere ustez, maneiatzen dituen txotxongiloek zerikusia dute. Ez zuen horrela gogoratzen obra hura, hain trinko eta korapilatsua, bere sotiltasun filosofikoarekin, bere bizitasun intelektualarekin. Ez zekien denak, funtsean, berdin jarraitzen duenik bostehun urte geroago.

Bambalina valentziar eszenan 1981ean agertu eta bere begirada txotxongiloen antzerkira zuzendu du. Konpainia beti nabarmendu izan da txotxongiloen kodea diziplinarteko munduetara zabaltzeko borondateagatik, eta txotxongiloen aurkeztu izan ditu dramaturgia bizi batekin, beste arte bisualekin ahaidetuta.

Muntaia honek gure literaturaren funtsezko lanetako baten balioak egungo publikoaren sentsibilitatera hurbildu nahi ditu, eta Premis de les Arts Escèniques Valencianes 2018an eman zirenean lau sari jaso zituen.

+ 16 URTE

ANTZEZLEAK

Águeda Llorca eta Pau Gregori.

LANTALDE ARTISTIKOA

Moldaketa eta zuzendaritza: Jaume Policarpo / **Argiztapen-diseinua:** Ximo Rojo / **Eszenografiaren diseinua:** Jaume Policarpo / **Txotxongiloen ilustrazioak eta diseinu grafikoak:** Jaume Marco / **Jantzien diseinua:** María Almudéver / **Txotxongiloen gauzatzea:** Miguel Ángel Camacho / **Argazkiak:** Vicente A. Jiménez / **Bideoa:** Albert Staromiejski / **Egituren eraikitzea:** jovipac / **Eszenografia-laguntzailea:** Miguel Ángel Camacho / **ekoizpena eta banaketa:** Ruth Atienza eta Marisol Limiñana.

La Celestina Bambalina, INAEM, IVC eta Ajuntament de Valènciaren ekoizpen bat da.

Argibide gehiago: www.bambalina.es

Iraupena: 85'

LA CASA MÁS PEQUEÑA

Maialen Díaz

YARLEKU TEATRO

Zuzendaritza: Rosa Díaz



UZTAILA 29, ASTEAZKENA / LA CAVA / 22:00

Antzerkiaren ikuspegi plastikoa eta balioen transmisioa uztartzen dituen bere ibilbideari leial, oraingoan haur errefuxiatuek jatorrizko lekutik alde egin ondoren eta haien helmuga zein izango den jakin gabe, bizi duten ziurgabetasuna jorratzen duen ikuskizunarekin datorkigu Yarleku.

Publiko guztientzako obra honek deserrotzea eta pertsonen arteko loturek kalteberatasun-egoeretan duten garrantzia jorratzen ditu. Norbera segurtasun eta lasaitasun sentsazioarekin bizi den tokia baldin bada etxea, zein da horretarako gutxieneko unitatea? Agian besarkada bat izan daiteke etxerik txikiena?

HEMENGO ANTZERKIA

ANTZERKIA FAMILIARTEAN

ANTZEZLEAK

Laura Villanueva Arteaga eta Eva Azpillikueta.

LANTALDE ARTISTIKOA

Zuzendaritza: Rosa Díaz / **Egilea:** Maialen Díaz / **Eszenografiaren diseinua:** David Lainez / **Eszenografiaren gauzatzea:** David Lainez eta Raúl Arraiza / **Jantziak:** Aiora Ganuza, Hari & Ari / **Musika:** Asier Fernández eta Eneko Anaut / **Argiztapena:** David Lainez eta Livory Barbez / **Argazkiak eta diseinu grafikoak:** Laura Blázquez Macías / **Itzulpenak:** Maialen Díaz, Rachel Mastin eta Harri Larunbe / **Ekoizpena:** Yarleku Teatro / **Banaketa:** Quiero Teatro.

La casa más pequeña Yarleku Teatrotan ekoizpen bat da.

Argibide gehiago: www.quieroteatro.com

Iraupena: 60'

KIMERA

LA BANDA TEATRO-CIRCO

Zuzendaritza: **Joserra Martínez**



UZTAILAK 30, OSTEGUNA / LA CAVA / 22:00

Charles Chaplinek esaten zuen, gertutik begiratuta, bizitza tragedia bat dela, baina urrutitik ikusita, komedia bat dirudiela.

Karga-kaia. Bizimodu hobe baten bila lan egiten duten, pasatzen diren edo iristen diren pertsonak. Kimerak egungo gizarteari begirada bat planteatzen digu, pertsonak handi egiten dituzten gauza txiki horien hauskortasuna erakutsi nahi digu.

Hainbeste jende leku ezezagun, babesgabe, harremanik gabeko batera bidaiatzeko dena uztera mugitzen duen arazoian pentsatzera gonbidatzen gaitu, etorkizuna, nahiz eta oso zalantzakoa edo oso iluna izan, jatorrizko lekuan baino itxaropentsuagoa omen delako beti.

Ikuskizun dibertigarri eta hunkigarri honetan begirada, gorputza, trebetasuna eta unibertso berezi eta zirrargarri bat eraikitzeko gaitasuna uztartzen dira. Linh jaunaren bilobaren birsorkuntza askea zirkuairen hizkuntzan.

Kimera: "Errealtzat edo posibletzat jotzen den ilusioa".

HEMENGO ANTZERKIA

ANTZETZLEAK

Izaskun Lasarte, Txetxu Collado, Nano Napal eta Jorge Córdón.

LANTALDE ARTISTIKOA

Zuzendaritza: Joserra Martínez / **Zuzendaritza-laguntzailea:** Maribel Martínez / **Jatorrizko eta zuzeneko musika:** Jorge Córdón / **Eszenografiaren diseinua:** Icaro construcciones eta Tesicnor / **Eszenografiaren eratzia:** Icaro eta Talleres Urrelar / **Argiztapen-diseinua:** Livory Bárbez / **Ikuskizunaren logotipoa:** Izaskun Hernandez / **Argazkiak eta diseinu grafikoak:** Itziar Matxain / **Bideoen ekoizpena eta edizioa:** Kaptura / **Webgunea:** Juan Napal / **Banaketa:** Quiero Teatro.

Kimera La banda teatro-circoren ekoizpen bat da.

Argibide gehiago: www.quieroteatro.com

Iraupena: 55'

YO, LA PEOR DEL MUNDO

Antonio Muñoz de Mesa

VAIVÉN PRODUCCIONES

Zuzendaritza: **Olga Margallo**



UZTAILAK 31, OSTIRALA / LA CAVA / 22:00

Ikuskizun musikal dardagarria eta gaurkotasun handikoa dugu hau, aske izateko guztiari eta denei aurre egiten dien emakume baten istorioa kontatzen diguna.

Bere bertsoen indarrarekin, Sor Juana Inés de la Cruzek Inperio goibel baten mexikar gorte koloniala sorgintzen du, boteretsuen maitale, Urrezko Mendeko musa eta bere izpiritu errebeldea menderatu ezin duen Eliza baten biktima bihurtzen delarik.

Ikuskizun bizizalea da hau, bere garaian jenio bat izan zen eta gaur egun oraindik harrizten gaituen emakume baten kolore, musika, edertasun eta irudimenaz kutsatua.

ANTZEZLEAK

Itxaso Quintana, Nerea Gorriti, Ylenia Baglietto, Ana Pimenta eta Ugaitz Alegria.

EQUIPO ARTÍSTICO

Zuzendaritza: Olga Margallo / **Egilea:** Antonio Muñoz de Mesa / **Zuzendaritza-laguntzailea:** Dorleta Urretabizkaia / **Diseinua eta Ekoizpen exekutiboa:** Ana Pimenta / **Musika originala eta zuzendaritza musikala:** Iñaki Salvador / **Koreografia:** Maitane Zalduogui / **Eszenografia:** Marcos Carazo / **Jantziak:** Lola Trives / **Argiztapen-diseinua:** Xabier Lozano / **Ekoizpen laguntzailea eta atrezzoak:** Monika Zumeta / **Zuzendaritza teknikoa:** Iñigo Lacasa / **Argiztapen-teknikaria:** Andoni Mendizabal / **Soinua:** Ederson / **Offeko ahotsa:** Antonio Muñoz de Mesa / **Musikariak:** Iñaki Salvador, Luis Mari Moreno eta Ainara Ortega / **Kudeaketa:** Izaskun Imizkoz / **Irudi grafikoa:** Antza / **Webgunea:** Manodesanto.

Yo, la peor del mundo Vaivén Produccionesen ekoizpen bat da.

Argibide gehiago: www.vaivenproducciones.com

Iraupena: 80'

BURDINA/HIERRO

Adriana Bilbao eta Beñat Achiary

ADRIANA BILBAO



ABUZTUAK 1, LARUNBATA / LA CAVA / 22:00

Barrenak harriaren kontra egiten duen zarata, flamenkoa, euskal kultura, sorkuntza eta bapatekotasuna, tradizioa eta modernitatek indartsuena..., urrutitik, bereziki Andaluziatik, Bizkaiko meategietan lan egitera iritsi ziren gizon eta emakume haiei omenaldi bat egiteko.

Musika eta dantza uztartzen dituen ikuskizuna da, meatze eta industria testuinguru batean kokatua. Meategia elkargune bezala; eta langileei, migratzaileei, ipar-hegoaren arteko elkarrekintzari, kultura desberdinen arteko aberastasunari gorazarre ere bada.

Burdinak, gainera, garai hartako eta ezkutuan egon den emakumeen testigantza berreskuratzen du. Bera da ikuskizunean dantzatzen duen bakarra. Bakarrik, ahaltzu, obra intimo baina baita unibertsal batean ere, ibilbide ospetsuko talde batek taularatua era indartsu eta txundigarri batean, non harri-zulatzailleak eta flamenkoaren palook agertokiaren gainean modu naturalean bizi diren.

ANTZETZLEAK

Beñat Achiary, Adriana Bilbao, Raúl Micó, Guillermo Guillén, Michel Queuille, Luis Mariano Casillas, Ander Eceiza eta Koldo Plazas.

LANTALDE ARTISTIKOA

Zuzendaritza eszenikoa: Adriana Bilbao eta Beñat Achiary / **Koreografia:** Adriana Bilbao / **Zuzendaritza-laguntzailea:** María Ibarretxe / **Testuak:** Itxaro Borda, Raúl Micó eta Gabriel Aresti / **Musika:** Beñat Achiary, Guillermo Guillén, Michel Queuille eta Raúl Micó / **Zuzendaritza musikala:** Beñat Achiary / **Eszenografiaren diseinua:** Adriana Bilbao eta Fran López del Cerro / **Argazkiak:** Jass Photography, Jasone Ortiz eta Jon Etxezarraga / **Argiztapen diseinua:** Álvaro Estrada / **Eszenografiaren gauzatzea eta jantzien diseinua:** Fran López del Cerro / **Jantzigitza:** Mariví Redoli / **Soinua:** Didier Teillagorry / **Ekoizpena:** Peio Mentxaka, Ezkandrai e Imajik.

Burdina / Hierro Adriana Bilbaoren, Beñat Achiaryren eta Imajiken arteko mugaz gaindiko ekoizpen bat da.

Argibide gehiago: www.adrianabilbao.com

Iraupena: 70'

MADRE CORAJE

Bertolt Brecht

Moldaketa eta zuzendaritza: **Ricardo Iniesta**
ATALAYA



ABUZTUAK 2, IGANDEA / LA CAVA / 22:00

Atalayak bizi garen jendartearen metafora bat aurkezten du oraingoan, jendarte hori bera arrakastaraino eta merkatuaren zein jabetzaren gurtzeraino doan lasterketa neurrigabearen murgilduta dagoelarik.

XX. mendeko antzerki-testu nabarmenenetako bat da, gerra hartzen duena erreferentziatzat, ez bakarrik haren aurkako iritzia emateko, baizik eta dirua nagusi den bizi-sistema baten alde egiten dutenen aurka egiteko ere, haien eta maite dutenen existentzia sakrifikatu behar badute ere.

Zein aukera hartuko zenuke bizi duguna bezalako muturreko krisi-egoera batean? Publikoa Marga Reyes bikain batek gidatutako talde baten hitzek galdekatuta sentitzea nahi du Atalayak.

Bertolt Brechtek, hemen bere garaiaz ez ezik etorkizunaz ere aparteko ikuspegia erakusten duenak, esan zuen espero zuela bere obrek XXI. mendean indarra galtzea. Zoritxarrez, Madre Coraje, ustelkeriaz eta gerraz bete, gaurkotasan izugarria du, are gehiago duela 75 urte baino gehiago idatzia izan zenean baino.

Gatazka belikoez munduko hainbat lekutan jarraitzen dute beren adiera literalenean, planetaren gainontzekoetan kuartelik gabeko gerra bat gertatzen den bitartean; ez gudaroste armatuen artean, baizik eta merkatuaren eta biztanle gehienen artean.

ANTZETZLEAK

Marga Reyes, Lidia Mauduit, Raúl Vera, Jerónimo Arenal, Sílvia Garzón, Manuel Asensio eta María Sanz.

LANTALDE ARTISTIKOA

Moldaketa eta zuzendaritza: Ricardo Iniesta / **Musikaren konposizioa:** Paul Dessau / **Moldaketa musikalak:** Luis Navarro / **Koruak:** Esperanza Abad / **Eszenografia:** Ricardo Iniesta / **Eszenografiaren eraikitzea:** La Fragua / **Jantziak:** Carmen Giles / **Zuzendaritza-laguntzailea:** Asier Etxaniz / **Antzezpen-laguntzaileak:** Marga Reyes eta Sario Téllez / **Makilajea eta ile-apainketa:** Manolo Cortés / **Koreografia:** Actores de Atalaya / **Argien diseinua:** Alejandro Conesa / **Soinu-espazioa:** Emilio Morales / **Tresneria:** Sergio Bellido / **Banaketa:** Victoria Villalta / **Komunikazioa:** M^a Paz López / **Kudeaketa:** Rocío de los Reyes / **Idazkaria:** Macarena Gutiérrez.

Madre Coraje Atalaya TNT-ren ekoizpen bat da.

Argibide gehiago: www.atalaya-tnt.com

Iraupena: 100'

ΚΟΥΛΤΟΥΡ ΕΤΧΕΑΚ



LÁZARO

Dramaturgia eta zuzendaritza: **Roberto Hoyo**
LEAMÖK



UZTAILAK 25, LARUNBATA / TAFALLAKO KULTUR ETXEA / 20:00

“Jaio nintzenean, aita hilda dagoeneko.

Ez nuen baliatu portu onera iristeko.

Amatxok ezin zidan ezer eman.

Hortaz, txalo batez agur esan, aditu batekin uzteko”

Hip hop estilora kontatuta, batzuetan joko eszenikoaren motorra izatera iritsiz, *Tormesko Itsumutila* klasiko espainiarraren egokitzapen libre baten aurrean aurkitzen gara.

Denok ezagutzen dugun istorio unibertsal bera da. Edo ia.

Lázaro nagusiz-nagusi doa, baina XXI. mendeko nagusiak ez dira XVI. mendekoen berdinak. “Itsua” bezala ezagutzen den mozkorti zahar bat, mairua, polizia sekretua, indarkeria eta kaleetako droga dira Lazaroren nagusiak. Musika eta lagunak, Marko musikariaren pertsonaian bilduta, bere nagusi guztietatik salbatzen saiatuko dira.

LANTALDE ARTISTIKOA

Antzezpena, dramaturgia eta zuzendaritza: Roberto Hoyo / **Ekoizpen musikala eta zuzeneko musika:** Marco Ferreira / **Ekoizpena eta komunikazioa:** M^a Ángeles Marchirant eta Laura Marín (a+ soluciones culturales).

Lázaro LEAMÖKen ekoizpen bat da.

Argibide gehiago: www.a-mas.net

Iraupena: 50'

EXPEDIENTE K (LA CARTA AL PADRE)

Franz Kafka eta Susanna García-Preto

Zuzendaritza: **Alex D. Capo**



ABUZTUAK 1, LARUNBATA / TAFALLAKO KULTUR ETXEA / 20:00

Kafkaren testurik argigarrienetako bat izan arren, *Aitari gutuna* ez zitzaion inoiz bere hartzaila zen bere aitari iritsi. Obra hau testu horretan oinarritzen da, taularatze harrigarri batekin.

Carlos, soinu teknikaria eta noizbehinka disko-jartzailea, bere lagunek K deitzen dutena, akats batengatik oso lan bitxia lortzen du: psikofoniak grabatzea. Europako nazien kontzentrazio esparru batzuetan barrena ibili ondoren, Terezingo kontzentrazio esparrua barne, lanak gaztelu bitxi batera eramaten du, uharte txiki batean, Kretatik gertu. Uharte hau naziekin zerikusi ilun bat duen Reichel familiarena da.

Zer grabatuko du gazteluan? Zer da golem bat? Zer egiten zuten naziek Terezinen? Zer egiten du Franzek mamu-istorio batean galduta? Eta, batez ere, non dago komuna?

LANTALDE ARTISTIKOA

Antzezpena: Dafnis Balduz / **Zuzendaritza:** Alex D. Capo / **Eszenografia:** Quim Roy / **Jantziak:** Montse Figueras / **Argiztapena:** Oriol Ibáñez / **Soinu-espazioa:** Alex D. Capo / **Zuzendaritza-laguntzailea:** Marina Rodríguez / **Ekoizpena:** Associació Cultural MANEL eta Teatre Principal de Vilanova i la Geltrú.

Expediente K (La carta al padre) Associació Cultural MANELen eta Teatre Principal de Vilanova i la Geltrúren ekoizpen bat da, Vilanova i la Geltrúko Círcol Catòlic-ek lagundutakoa.

Iraupena: 60'

ANTZERKI POETIKA ZIKLOA

MÁXIMA ESTRELLA

LORE MORE

Zuzendaritza:

Mikele Urroz Zabalza



UZTAILAK 17, OSTIRALA / ERRIBERRIKO KULTUR ETXEA / 20:00

UZTAILAK 24, OSTIRALA / TAFALLAKO KULTURGUNEA / 20:00

Bohemiako argiak eratzten duen unibertsoari begirada garaikide baten aurrean gaude. Lore Morek Valle-Inclánek deskribatutako pertsonaien izena eta arketipoa mantentzen eta orainaldira ekartzen ditu, bizitzea egokitu zaigun garaiaren erretratu bat margotzeko, esperpentotik eta bufoikeriatik: garai bidegabe eta ustel bat, non heroiak galduta jarraitzen duten Katuaren Kalezuloan.

Horrela, 2020an Max Estrella Máxima Estrella izango da, goitik behera etorritako musika artista. Máximak ospe artistikoari uko egiten dio karaokean aritzeko (bere ustez, arte herrikoiaren adierazlerik handiena, non edozein izan daitekeen izar bat, abesti batek irauten duen bitartean). Edozein hiri -edo bat ere ez- izan daitekeenaren zehar egingo duen bidaian topo egingo du munduaren ispilu ahurraren parean eta gordintasun osoz jarriko duten pertsonaiekin eta errealitateekin.

Zertarako abestu?



TESTU POETIKOAK



HEMENGU ANTZERKIA

ANTZEZLEAK

Maialen Díaz Urriza eta Naiara Carmona.

LANTALDE ARTISTIKOA

Zuzendaritza: Mikele Urroz Zabalza / **Egilea:** Lore More / **Esenografia eta Jantziak:** Lore More / **Ekoizpena:** Lore More.

Máxima Estrella Lore Moreren ekoizpen bat da.

ANTZERKI POETIKA ZIKLOA

LA TRASERA

Iratxe García Uriz

IRALEI



UZTAILAK 18, LARUNBATA / ERRIBERRIKO KULTUR ETXEA / 20:00

UZTAILAK 26, IGANDEA / TAFALLAKO KULTURGUNEA / 20:00

Atzealdea neskato arraro baten bizi-aterpea da. Neskak, desberdina denez, hesitik ezkutuan behatu du denboraren igaraldia. Ezkutatzeko, topo egiteko, musu emateko, drogatzeko, norberarekin amets egiteko eta, batez ere, idazteko leku bat da.

Como las cenizas por el fuego lanaren arrakastaren ondoren, Iralei bere testu batekin Itzuli da Erriberriko Antzerki Jaialdira: *La trasera*, non elkarrekin bizi diren errealitatea eta fikzioa, autobiografia eta besteren bizitzak, iragana eta poesia, Iratxe García Uriz egilea markatu duten Lorca edota César Brie bezalako izenen usain gozosa duten kontakizunak.



TESTU POETIKOAK



HEMENGU ANTZERKIA

LANTALDE ARTISTIKOA

Leire Ruiz eta Iratxe García Uriz.

La trasera Iraleiren ekoizpen bat da.

ANTZERKI POETIKA ZIKLOA

AHORA ME TOCA A MÍ

Dramaturgia eta zuzendaritza:
Miguel Goikoetxandia
ILUNA PRODUCCIONES



UZTAILAK 19, IGANDEA / ERRIBERRIKO KULTUR ETXEA / 20:00

UZTAILAK 31, OSTIRALA / TAFALLAKO KULTURGUNEA / 20:00

Elkarriketa hunkigarri eta bizi batean, Maria Elenak, Espainian bi urte daramatzen emakume Ekuadortarrak, bertan izandako bizipenak kontatzen dizkio Franciscori, hitz egin eta mugitu ezin den agureari. Horretaz gain, alabaren Andrés mutil-lagunari buruz ohartarazten dio.

Genero indarkeria, migrazioa, emakumezkoen salerosketa, prostituzioa eta elkartasuna, biziraupenaren errealitatea... jorratzen dira lan honetan. 2021ean mustuko den *Maletas* lanaren zatia da, migratzaileei buruzko istorioek osatutako puzzlea izan nahi duen asmo handiko obra.



TESTU POETIKOAK



HEMENGU ANTZERKIA

LANTALDE ARTISTIKOA

Dramaturgia eta zuzendaritza: Miguel Goikoetxandia / **Antzezleak:** Ana Berrade eta David Larrea.

Ahora me toca a mí Iluna Produccionesen ekoizpen bat da.

Argibide gehiago: www.ilunaproducciones.es

ANTZERKI POETIKA ZIKLOA

EL CRIMEN FUE EN GRANADA

LA NAVE
Zuzendaritza:
Marta Juárez



UZTAILAK 23, OSTEGUNA / ERRIBERRIKO KULTUR ETXEA / 20:00

ABUZTUAK 2, IGANDEA / TAFALLAKO KULTURGUNEA / 20:00

Garai batean, Espainiako historian, Alberti, Machado, Hernández... bezalako poetei bertsoak minetik, azaletik, odoletik ateratzen zitzaizkien. Gaur egoera nahasia bizi dugu, eta herrialde honetako bi uneak bereizten dituzten ezaugarriak badaude ere, bada zerbaít, distantzian eta denboran, bere amaraun fina zabaltzen duena... Mina. Norberaren eta besteren mina. Eta hortik sortu da obra hau.

La Navek garai hartako poema ikaragarrietako batzuk bildu ditu, eta haiekin ikuskizun izugarri eta dardarazle bat eraiki du, non ikus-entzunezkoak, musikak, poesiak eta eszenografiak ulertzen lagundu nahi diguten, ez ahazteko. Inoiz errepika ez dadin. Sekula santan.



TESTU POETIKOAK



HEMENGU ANTZERKIA

REPARTO

Marta Juárez, José M^a Asín eta Pablo Asiáin.

LANTALDE ARTISTIKOA

Zuzendaritza: Marta Juárez / **Egileak:** Marta Juárez eta Miguel Munárriz / **Irudien sorkuntza:** Miguel Juárez / **Argiztapen-diseinua:** Gaizka Mendieta / **Jantzien diseinua:** Marta Juárez / **Eszenografiaren diseinua:** La Nave / **Teknikaria:** Miguel Juárez.

El crimen fue en Granada La Naveren ekoizpen bat da.

Argibide gehiago: www.lanaveteatro.com

**BESTE JARDUERA
BATZUK
ETA TAILERRA**



PRENTSAREKIN TOPAKETA

UZTAILAK 19, IGANDEA / 12:00 /
TURISMO BULEGOA - ARDOAREN MUSEOA

Machús Osinaga (RTVEko kazetaria, Arte Eszenikoetan aditua), **Daniel Galindo** (RNEko *La Salaren* zuzendaria) eta **Raúl Losáñez** (antzerkigilea eta *La Razón* antzerki-kritikaria).

Sarrera librea aretoa bete arte.



SORTZAILEEKIN TOPAKETA

UZTAILAK 24, OSTIRALA / 12:00 /
TURISMO BULEGOA - ARDOAREN MUSEOA

Antonio Simónekkin

Oraingoan, Erriberriko Jaialdiak Antonio Simón zuzendari gonbidatuarekin topaketarako eta elkarrizketarako toki bat irekitzen du.

Antzezleekin egindako lanagatik nabarmentzen den ibilbide luze batekin, Antonio Simónek XX. mendeko erreperitorioa eta garaikidea izan ditu ardatz. Edizio honetan *Esperando a Godot* lanarekin daukagu Erriberriin.

Sarrera librea aretoa bete arte.



MINTEGIA - TAILERRA

ANTONIO SIMÓN

ANTZEZPENA ETA ZUZENDARITZA

UZTAILAK 25, 26, 27, 28 eta 29 / 17:00ETATIK 20:00ETAR
/ ERIBERRIKO KULTUR ETXEA. ZUZENDARI GONBIDATUA.

Antonio Simón, eskarmentu handia eta merezitako ospea duen antzerki zuzendariak, aurtengo Jaialdian *Esperando a Godot* aurkezteaz gain, uztailaren 25etik 29ra bitartean mintegi bat emango du Erriberriko Kultur Etxean: *Antzezpena eta zuzendaritza. Antzezpena eszenaratzearen motor gisa.*

Antzezlearen lanaren bidez eszenaratzea lantzeko funtsezko kontzeptuak eta prozesuak azalduko dira bertan.

Antzezanaren unibertsoa eraikitzea, aktorea eremu tentsional batean kokatzea estimulu desberdinei bere erreakzioa eragiteko, horiek dira Simónen lan eszenikoaren arretaguneak, antzeppen mailez eta pertsonaiaren munduekin duten korrespondentziak gain.

Azalpen teoriko hauek banakako ariketekin osatuko dira, kontzeptu horiek aplikatzeko.

Parte hartzaileek testu hauetako bat aukeratuko dute: Samuel Becketten *Esperando a Godot*, August Strindbergen *Señorita Julia* edo Antón Chéjoven *La gaviota*.

IZEN-EMATEA

Mintegi honek 16 plaza eskaintzen ditu antzele eta zuzendari profesionalentzat. Izena eman ahal izango da plazak agortu arte.

Horretarako **izena** eta **bi abizenak, helbidea, NANA, telefono mugikorra**, harremanetarako **e-posta** bat eta matrikularen **ordainagiria** programasydifusion@navarra.es e-postara bidali beharko dira mezu batean.

Mintegian izena emateko, hurrenkera kronologiko zorroztza jarraituko da matrikula ordaindu duten pertsonen artean.

Ordainketa, 30 eurokoa, banku-transferentzia bidez egin beharko da ES38 2100 3693 2122 00547110 kontuan, Kultura Zuzendaritza Nagusiaren izenean dagoena, eta ordainketaren kontzeptuan **ANTONIO SIMÓNEN MINTEGIAREN MATRIKULA** eta izena ematen duen pertsonaren **izen-abizenak** adierazi beharko dira.

Prezioak klaseak bakarrik hartzen ditu barne. Mintegian parte hartzen duten pertsonen kontura izango da Erriberrira iristea.

Norbaitek izen-ematea ordaindu badu eta plazak bete badira, matrikularen zenbatekoa itzuliko zaio.

EGOITZA - LABORATEGIA

ABUZTUAK 2 IGANDEA / ERIBERRI

OIHALKI BAT, MUNDU BAT / YARLEKU TEATRO

Yarleku Teatro, aurtengo programa ofizialean *La casa más pequeña* lanarekin parte hartzen duena, Jaialdiak edizio bakoitzean deitzen duen egonaldi artistikoa egiteko aukeratutako konpainia da.

Taldeak gizarte- eta hezkuntza-izaerako ikuskizunak sortu nahi ditu, antzerkiaren ikuspegi plastikoa eta balioen transmisioa uztartuz. Oraingoan *Retales* ikuskizuna sortzeko objektuaren poetika ikertzeari ekin dio.

Retales familiendako antzezan bat da, non bat egiten duten antzezeen interpretazioak eta objektuen eta txotxongiloen antzerkiak. Egonaldi honetan horretan, Yarleku, María Parrato zuzendariaren eskutik, sormen-prozesura hurbilduko da.

Ezartzen zaizkigun patroiak alde batera utzita, norbera izateko ausardiari buruz hitz egiten duen kontakizun bati ekingo diote, non gorputzen eta identitateen aniztasuna aberastasuna den. Retalesen, adiskidetasunak eta amets partekatuak mundu bizigarri bat sortzeko indarra ematen dute, haraino hegan egiteko.

WWW.OLITETEATROFESTIVAL.COM

#ANTZERKIAERRIBERRI2020



Antolatzaileak:



Laguntzaileak:

